



MUGARIK GABE

Organización No Gubernamental de Cooperación
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible
Declarada de Utilidad Pública



TXOSTENA

2015

GURE LANKIDETZA

AZKEN 5 URTEETAN

2015. urtean 5 urte bete zituen gure 2010-2015eko Plan Estrategikoak, eta horretaz baliatu gara atzera begiratzeko, eta igaro dugun hain krisi gogorreko aldi honetan zer gertatu den ikusteko, bai eta antolakundearen barruan zer gertatu den ere. Jasan ditugun baldintzak eta kanpotik iritsi zaizkigun zailtasunak berrikusi eta gero, aurreratu ahal dizuegu gure ondorioa dela, aldi hori hain korapilatsu eta gogorra izanik ere, geure printzipio etiko eta politikoei eta lankidetzaz dugun ikuspegi konprometituari eustea lortu dugula oroz gainera, lehen bagenituen lanpostu guztiak gordetzeko berebiziko ahalegina eginda, lansariak murriztuz, eta gure lan-ildoen bidetik jarraituta hiru arloetan –hots, Genero Ekitatearen arloan, Herri Indigenen arloan eta Elikadura Burujabetzaren eta Kontsumo Kontziente eta Arduratsuaren arloan– nahiz lan egiten dugun herrialdeetako gure antolakunde kide guztiekin, zenbatekoak gutxitu badira ere, erakundeek eginiko murrizketak direla-eta. Horiek horrela, Mugarik Gabeko talde guztia zoriondu behar dugu, langile kontratudunak, boluntarioak, laguntzaileak eta bazkideak, guri laguntza ematen jarraitu duten guztiak.

Lankidetzaren testuinguruaren azterketa

Lehenik eta behin, lankidetzaren izaera zehaztugabe batean kokatuta dagoela esan behar da. Alde batetik, lankidetzaren heldu egin da urteetan zehar, joan den mendeko 80ko hamarkada aldera, gutxi gorabehera, jaio zenetik. Beti jakin izan dugu, lankidetzarako eredu eta proposamenei ematen saiatu garen eduki politikoagatik ere, lankidetzaren neurri handi batean politika instituzionalen mende zegoela. Azken horren eraginez, elkartasunaren dimentsio politikoa galtzen da, ordeztu egiten da, neurri handi batean, estatuak Hegoaldeko herrialdeetako herritarren beharrezko oinarrikoenak (eskubideak gauzatzea barne) betetzeko duten erantzukizuna, eta mugimendu soziala GKE huts bihurtarazten da, eta horrek, hain zuzen, eskakizun sozialen profil politikoa galtzea dakar; hiru elementu bakarrik aipatzearen.

Azken urteek krisia deitutakoa izan dute gainean, eta, ekonomikoa bakarrik ez dela dakigun arren, krisi hori lankidetzarako funtsak drastikoki murrizteko aitzakiatzat erabili dute, problematika horiek duten lehentasun politiko eskasa agerian utzirik horrela, funtsik sobera geratuz gero bakar-bakarrik ematen den laguntza gisa ikusten baita.

Gure lan-eremua dela-eta, Hegoaldeko herrialdeekiko lankidetzaren deritzoguna, baina Eraldaketarako Hezkuntzaren arlotik ere bai, Mugarik Gaben pribilegiatuak gara eremu horretan gertatzen ari diren aldaketen etengabeko jarraipena egin ahal izateko. Bai gure gizartean, bai –batez ere– Latinoamerikan, ikusi dugu nola azken urteetan eredu nagusiaren aurreko alternatibak sortzen ari diren. Eraldaketa horien xedeak dira justizia sozial handiagoa ezartzea, aberastasuna birbanatzea, politika-arloa ekonomia-arloari nagusitzea edo desagertutako estatus itzultzea, deskolonizazio eta despatriarkalizazio sakoneko prozesu interesgarriak egoteaz gain. Prozesu horiek ongi dabilzan ala ez aztertzeari ekin gabe (ziur ezetz, eta ziur hutsak egiten ari direla), nabarmendu behar da, teoria ez ezik, praktika politikoa ere definitzen ari direla, eta horrek sistemaren aurreko alternatiba horiei buruz gogoeta egiteko bide ematen du, baita praktikatik ere. Baina gure inguru hurbilenean ere prozesu berriak sortu dira azken urteetan, edo beste



batzuk sakontzen ari dira, mugimendu sozialetatik alternatibak artikulatzen saiatuta.

Arestian aipaturiko prozesuen ondorioz, neurri handi batean, aspalditik ari gara lankidetzaren birpolitizatze beharra aztertzen, beste antolakunde batzuekin batera. Eta horretarako, beharrezkoa da azpimarratzen jarraitzea egunegun lankidetzaren eta elkartasun kritikoagoa eta autokritikoagoa egin behar dugula. Hori lortze aldera, gure aburuz badira ekintza guztietan oso kontuan izan behar ditugun bi ikuspegi, nola Hegoaldeko bidaian bidaide ditugun antolakunde kideekin, hala gure herrialdeko mugimendu sozialekin: eskubideen ikuspegia eta subjektuen ikuspegia.



Lehen ikuspegiak, eskubideenak, azpimarratuko du – giza eskubideen tresnei egin ahal dizkiegun kritika guztiak gorabehera– giza eskubideek izan behar dutela, hain zuzen, egiten dugun ekintza ororen iragazkia. Eta eragina izan behar diogu, lankidetzako eta elkartasuneko beste eragile batzuek ere ikuspegi horrekin bat egin dezaten. Gogorarazi behar da garaiotan giza eskubideak, diskurtso politiko eta sozial guztietan tokia izatetik, ia desagertzeraino igaro direla.

Bigarren ikuspegia, subjektuena, eraldaketa-prozesuen subjektu politikoak mugimendu sozialek izan behar dituztela egiaztatzearen ondorio da, mugimendu horien elementu positibo zein negatiboen jakitun. Eta horrek balio du bai Hegoaldeko herrialdeentzat, bai gure



herrialdearentzat berarentzat. Gero, neurri handi batean galdu den toki bat berreskuratu behar dugu lankidetzatik, errotiko eraldaketa sozialeko prozesuekiko konpromisotzat birdefini genezakeena, mugimendu sozialekin batera.

.



Ebaluazioko barne-azterketak

Gure 2010-2015eko Plan Estrategikoaren barruan, aldi horretarako beti bi alderdi kontuan izatea onartu genuen, gure lanerako ezinbestekotzat jotzen ditugunak: salaketa eta alternatibak.

SALAKETA, beste errealitate batzuentzat bidegabetzat jotzen dugun ororen berri ematea, alegia. Lan-arlo zehatzen barruan (Generoa, Herri Indigenak, eta Elikadura Burujabetza eta Kontsumo Kontziente eta Arduratsua), emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunari, herri indigenen eskubideen urraketari, eta elikagaien ekoizpenean elikadura-eskubideak eta burujabetza urratzen dituzten ekintzei zuzenean loturiko salaketak egitea planteatzen dugu. Bai eta gizarte kontsumista baten salaketa ere, non irabaziak lortzea goranzko balioa den.

ALTERNATIBAK, gizarte bidezkoagoa eta ekitatiboagoa lortzeko. Ikuspegi sakona eta politikoa izaten saiatzen gara, beste herrialde eta komunitate batzuetako beste esperientzia batzuk, beste borroka batzuk, beste lorpen batzuk ezagutarazteko. Bizitza eta natura ulertzeko beste era batekin lotura duten esperientziak, baina barne-antolaketarako beste era batekin ere bai. Harreman sozial hobekin baina diru-kontsumo txikiagoarekin bizitzearen esperientzia positiboak. Beste errealitate batzuk, non gauzei mugak jartzeko saiakera egiten den eta kolektiboa denari balio handiagoa ematen zaion, bizitza beste era batera ulertuta.

Baina aldi horretan, 2009an nozitzen hasi ginen "krisia" delakoa aipatu behar da, erakundeek nazioarteko lankidetzarako laguntzen funtsak murrizteko neurriak hartu zituztela-eta. Larriena izan zen hainbat urtetan ireki ziren prozesu askorekin konpromisoa hautsi zutela erakundeek, eta halaxe gertatu zen Latinoamerikan, besteak beste, Euskal Herriko gizartearekin hain harreman estua edukita ere.



Nazioarteko lankidetzaren murrizketek honako hauek eragin dituzte, oro har:

1. Lankidetzari buruzko Legea ez betetzea.
2. Problematika sozialei –ez bakarrik tokikoei, baizik eta nazioartekoei– erantzun behar dieten politika publikoen desagerpena areagotzea.
3. Euskal lankidetzaren pixkanaka desagertzeko arriskua, Amerikako, Afrikako eta Asiako herri askorekin gure gizarteak duen eraldaketako eta elkartasuneko konpromisoaren erreferentzia gisa.
4. Lankidetzaren Euskal Kontseiluan ordezkaturiko erakunde guztiek, 2012ko uztailan, lankidetzaren deszentralizatuaren alde izenpetu zuten adierazpen instituzionala ez betetzea.
5. Euskal lankidetzaren heterogeneotasuna eta aniztasuna galtzeko aukera, bideraezintasun ekonomikoa dela kausa, GGKE asko ixtearen ondorioz, haiek izanik euskal lankidetzaren eragile nagusiak. Horrek bereziki kaltetzen ditu erlijio, enpresa, alderdi eta/edo bestelako egitura batzuekin loturarik edo mendetasunik ez daukatenak. Eta lanpostuak galtzea ekar dezake berekin.
6. Emakumeen ahalduntze-prozesuak atzera egitea, aldaketarako emakumeentzat estrategikoak diren interes batzuen inguruko eta mugimendu feministaren aldeko lankidetzaren aurrerakoia egitetik oinarritzko beharrezanetarako laguntzara igarotzearen ondorioz.

Nazioarteko lankidetzaren nahiz eraldaketarako hezkuntzaren murrizketek Mugarik Gaberen barruan honako hauek eragin dituzte, besteak beste: Mugarik Gaberen antolakunde kideekin zeuden prozesuak ahultzea; proiektuak gutxitzea, lankidetzaren eta programetan, batik bat; Mugarik Gaberen egiturazko gastuak murriztea; finantza-krisia; soldata-jaitziera; lan-malgutasuna

eta lana areagotzea; alde positiboan, langile guztiak atxikitzeaz gain, antolakundearen eragin politikoa eta erresilientzia areagotu dira, eta aldaketa sozialarekin konprometituriko kolektiboa izateko sentimena indartu egin da.

Aldi horretan Mugarik Gaberen 25 urte bete ditugu, 2012an

Mugarik Gabek garapenerako gobernu kanpoko erakunde gisa betetako 25 urte horietan zehar beti esan dugu, Mugarik Gabek bezala mundua irentsi eta aldatu nahi duten eta pertsona guztientzat onena nahi duten beste erakunde batzuek bereiztekotan, bereizgarri hori bakarrik izan daitekeela egunez egun horretan nola dihardugun. Desberdin egin ahal gaituen bakarra da nolakoak garen eta nola antolatzen garen. Denok nahi dugu mundu hobea. Denok dauzkagu geure idealak, baina haiek lortzeko moduak baino ez gaitu hobea egingo. Bakarrik



bereizten gara elkarri begiratu eta gauzak aurrez aurre esateko gai garenean, koordinatzen ahalegintzen garenean, denbora era kolektiboan erabakitzen, guztiontzat bidezkoagoak diren antolatze-formula berriak bilatzen, inbertitzen dugunean. Beste antolakunde batzuekin lan egin, eta gure balioak transmititzen dugunean, zeinetan sinesten ditugun. Espazio berri, batzar bidezko,

horietan, kostatu egiten da ados jartzea aginduak ematen dituen inor ez dagoenean, eta guztiari adi egon behar da, ardura partekatua dagoelako eta guztion mende dagoelako antolakundea aurrera ateratzea. Hori guztia ahalegin handia izan arren, uste dugu saiatzea eta aurrera eramatea merezi duela, eta horretan iraun dugu orain arte.

Gaur, 28 urteak beteak ditugula, eta krisi gogor hori mahai gainean, hobetzen saiatzen gara eta Mugarik Gaberen izateko eta egiteko modua berresten dugu.

NOLA EGIN DUGUN

Gure sare-lana

Sarean lan egiteko eta beste antolakunde eta mugimendu batzuekin koordinatzeko egiten dugun apustuaren barruan, azken urteetan ekarpenak egin ditugun espazioetan parte hartzen jarraitu dugu: M8ko plataforma eta hiru herrialdeetako emakumeenganako indarkeriaren aurkako A25eko plataforma, EMM-Emakumeen Mundu Martxa, Abortatzeko Eskubidea plataforma, Zentzuz Kontsumitu, Saretuz, Desazkundera, CODPI, Zero Pobrezia Gipuzkoan, Arabako Eskubide Sozialen aldeko Plataforma, Herrien Elikadura Burujabetzaren aldeko Aliantza-EH, Kolektiba Colombia 2012ra arte, eta EHko mugimendu sozialen eta sindikatuen Gunea, desagertu zen arte; eta, berrikitan, bat egin dugu EHko "TTIPari ez" kanpainarekin. 2015ean Elkartasuna Eraldatuz plataforma eratu zen, lankidetzak kritiko eta konprometituaren alde, eta guk bertan parte hartzen dugu.

Erakundeen alorrean, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko lankidetzak-kontseiluetan parte hartu izan dugu, hainbat gai azterturik, hala nola kontseiluan antolakunde berriak sartzeari, udalen diru-laguntzak, gida-planen eta urteko plan operatiboaren jarraipena, eta abar. Halaber, Lankidetzaren Euskal Kontseiluan



parte hartu dugu, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen bidez. Horrez gain, aurrean dugun egoera eta koiuntura berriaren aldaketa eraldatzailea lortzeko, lankidetzaren barruan izan beharreko irizpideei buruzko manifestua osatu zuen taldean lan egin genuen. Era berean, estatu mailako beste koordinakunde batzuk sortzen parte hartu dugu, hala nola Lankidetzak Feminista baten aldeko Aliantza, TTIPa genero-ikuspegitik salatzearen asmoz, eta emakumeen eskubideen aldeko eta indarkeria matxistak ezabatzeko estatuko sarea; eta EHn, 2013ko Emakumeen Eskubideen Auzitegi Sinbolikoaren prozesuaren harira eratu zen La Colectiva taldea.

Gure lana komunikabideetan

Azken urteetan, asko ugartu ditugu Mugarik Gaberen agerpenak, bai prentsan, bai telebistan. Planaren lehen urteetan, komunikabideetako agerpenak 30 baino gutxiago ziren batez beste, eta azken bi urteetan, aldiz, kopuru hori alde handiz bikoiztu dugu. Hala, azken 5 urteetan, komunikabideetako agerpenak ia 250 izan dira, eta, ondorioz, komunikabideek gure lanaz duten balorazio positiboa ere sendotu egin da. Eta parte-hartze hori positiboa dela azpimarratzen dugu,

ez bakarrik kopuruagatik, baizik eta gure jarrera politiko eta sozialak gizarte guztiari adierazi eta hedatzeko era bat delako.

Jasotako sariak

Mugarik Gabek saria jaso zuen Ramón Rubial Sarien V. Edizioan, 2010. urtean. Ramón Rubial Sarien helburua da urtean zehar, Ramón Rubial Fundazioko patronatuaren iritziz, askatasun, demokrazia, elkartasun eta tolerantzia handiagoak bilatzean gehien nabarmendu diren pertsonak edo entitateak saritzea.

Podemosen Impulsa programaren saria jaso genuen 2015ean, kanpotik ikusita lortu dugun ezagutzaren eta irudi onaren ondorioz, egiten duguna egiteagatik eta egiten dugun moduan egiteagatik.

Gure bazkideak, boluntarioak, eta praktiketako pertsonak

Nahiz eta, krisiagatik ere, bazkideak asko gutxitu ez diren, gutxitu egin dira, ordea, eta bajak gehitu dira; hori dela-eta, ahaleginak biziagotu behar ditugu geure oinarri soziala are gehiago zabaltzeko.

2010-2015eko plan honetan zehar, Mugarik Gabeko boluntarioak, oro har, gutxitu diren arren, praktiketako pertsonen parte-hartzea etengabe handitu da hiru herrialdeetan, UPV/EHUko zein Deustuko zenbait fakultate zein ikasleren bidez.

Finantzaketa

Proiektuen finantzen jarraipena hobetuz joan da, bai eta kontu-ikuskapenen urteko itxiera ere, Jaurlaritzari garaiz aurkezteko.

	2010etik 2015era
Sarrera pribatuak	1.044.342,00
Sarrera publikoak	17.624.847,12
GUZTIRA	18.669.189.12

Hain zuzen, horrexek ahalbidetzen du gure lana neurri handi batean Latinoamerikan zein Euskal Herrian, alde ekonomikotik; apustu honen beste aldea, konpromiso humano eta politikoarena da.

ONDORIOAK

Hasieran aipatu dugunez, pentsatzen dugu nahikoa ongi egin dugula, urte hauek hain zailak izateko.

Krisiagatik ere, atzeman diren indarguneak eta planean planteatuetako batzuk:

1. Pertsonalaren malgutasuna eta prestasuna, antolakundea mantentzeko, elkarrengandik ikasteko, eta babesten ditugun prozesuen aldeko apustua egiteko.
2. SAREetako parte-hartzea nabarmen areagotzea, batez ere indarkeria matxisten eta desazkundeen aldetik.
3. Komunikabideetan agertzea nabarmen areagotzea.
4. Koherentziari eustea: langile guztiak, antolakunde kide guztiekiko lana, eta lan-ildoak atxiki ahal izan ditugulako.
5. Eragin handia alderdi politikoengan, krisiaren une erabakigarrienean.

Krisiagatik, baina ez bakarrik beragatik, atzemandako ahulguneak:

1. Pertsonal-mugimenduak antolakundearen funtzionamendua eta egitura ahultzen edo zailtzen ditu.
2. Lantaldeak gehiago teknifikatzea, herrialdeetan gertatzen diren prozesuen jarraipen politikoaren kaltetan.

3. Prestakuntza gutxiago, denbora-eskasiagatik.
4. Ahulezia ebaluazio-tresnak erabiltzean.
5. Zenbait inpaktu negatibo pertsonen osasunean.

HERRI INDIGENEN ARLOA

2015. urtea, murrizketa ekonomiko eta politikoak –sistema nagusiari erasaten dion egiturazko krisiaren zuzeneko ondorioz– jasaten jarraitu arren, berriz ere jardun beteko urtea izan zen Mugarik Gaberentzat, Herri Indigenen Arloari dagokionez. Oraindik ere badaude irekirik lanerako eta gogoetarako fronte asko, bai gure gizartean, bai Latinoamerikan.

Tamalez, herri horiek nozitzen dituzten giza eskubide indibidual eta kolektiboen urraketak salatzen jarraitu behar izan genuen, baina, zorionez, lan bizia ere egin genuen herri horiek beretzat planteatzen dituzten alternatiben gogoeta eta eraikuntzan lagun egiteko. Eta azken horiek bai herri gisa dituzten berezko errealitate eta koiunturen esparrukoak, bai esparru zabalagoko batekoak izaten dira, hau da, indigenak ez diren gizarteentzat ere sustatzen dituzten alternatibak, uneko ereduaren orde.



Hala, deskolonizazio eta despatriarkalizazioko prozesu batzuez ari gara, paradigma berri batzuez, Ongi Bizitzeaz kasu. Halakoek duten baterako helburua da herri indigenen aurkako bazterkeria eta arrazakeria bukatzea, baina, orobat, emakume indigenen eskubideen urraketa sistematikoaren aurka borrokatzea, eta gizarte bidezkoagoak eta ekitatiboagoak eraikitzea, aberastasuna birbanatzen dutenak eta gizon-emakume guztien eskubide guztiak egiaz erabiltzea ahalbidetzen dutenak.

Hau horretarako tokia ez den arren, aipamen berezia egin behar da, ildo horretan, Bolivian lehen lehendakari indigenak irabazi zuenetik 2015ean bete den 10 urteurrenaz, bai eta denbora horretan abian jarri diren eraldaketa sakon guztiez ere, estatu plurinazional berria eratzetik hasita, herritar gehienek artean pobrezia eta muturreko pobrezia izandako jaitziera handiraino, ekoizte-sektore batzuen nazionalizazioa eta gehiengo horien ongizatea areagotzeko estatuaren esku-hartze erabakigarria tartean direla.





Urteko balantzaren alde negatiboan, lehen oro har aipaturikoaz gain, aipatu behar da herri horiek lurraldearen gainean dituzten eskubideen aurka kanpotik egin diren erasoen larriagotzea. Erauzketan diharduten denetariko transnazionalak herri indigenen

lurraldeetan sartzen jarraitzen dute gobernuen babesarekin, haien funtsezko eskubideak, nazioarteko zuzenbide-tresna askotan jasotako eskubide batzuk, urraturik horrela. Milaka urtean zaindutako eremuen ustiaketa eta kutsadura mantendu eta areagotu egiten dituzte. Enpresa horien ardura bakarra da ahalik eta merkeena ustiatzea, eta ahalik eta etekinik handienarekin, eta enpresok lurralde horietatik alde egingo dute baliabide naturalak agortu eta gero, hondamena eta pobretze-egoera atzean utzita.

Txanponaren alde berean dago komunitate eta antolakunde indigenek nozitzen duten kriminalizazioa, hain zuzen ere, beren lurraldeak defendatzeagatik eta bertako konstituzioetan zein nazioarteko hitzarmenetan aitortutako giza eskubideak bete daitezela eskatzeagatik. Hala, transnazionalentzako irabazi eskergak handitzearekin batera –babesa ematen dieten tokiko eliteek ere zerbait jasotzen dutelarik–, 2015ean ikusi genuen nola egin zuten gora protestaren errepresioak eta kriminalizazioak. Ondorioz, preso politikoen kopurua gehitu egin da kontinenteko hainbat herrialdetan, hala nola Guatemalan, Kolonbian edo Txilen, nabarmenenak aipatzearren. Testuinguru horretan, kasu berezia da preso politikoen gorakada Guatemalan (asko behin-behineko espetxealdian egoten dira, baina hilabete eta hilabeteetan). Bahiketa, lapurreta edo agintaritzari men ez egitea leporatutako agintariak edo liderrak izaten dira, beren komunitaten manuari jarraituz, lurra eta lurraldea defendatzeko garaian kontsekuenteak izateagatik, ama lurrarenganako errespetua sustatzeagatik, eta herri horientzat bizitza oso-betea lortu nahi izateagatik. Halaber, Kolonbiako kasua aipatu behar da; hain zuzen, gobernuaren eta FARC gerrillaren arteko Habanako bake-elkarrizketek pauso handiak eman dituzten arren, ezin esan daiteke, aitzitik, herri indigenen egoera neurri berean hobetu denik, bizi-baldintzen aldetik eta mugimenduaren kriminalizazioaren aldetik.

Baina, txosten honetan, Mugarik Gabeko arlo honetatik ikuskera positibo bat ere eman nahi dugu. Eta ildo horretako elementurik nabarmengarriena dagoneko aipatu dugu, nolabait. Oro har, herri eta antolakunde indigenek tinko iraun dute beren eskubideen defentsan, kontinenteko herrialde guzti-guztietan. Eta gauza bera gertatu da bidegabeko eredu nagusia ordeztzeko alternatibak eraikitzeko garaian, gizarteko eta herri xeheko beste sektore batzuekin batera askotan.

Baina 2015ean bi jarduera-sektore estrategikotan izan diren aurrerapen handiak ere aipatu nahi ditugu berariaz. Batetik, gogoetarako espazioak sortzen eta babesten jarraitu dugu, Kolonbian, Bolivian eta Guatemalan hainbat urte direla Mugarik Gabek (batzuetan CODPIrekin batera –Herri Indigenen Eskubideen aldeko Koordinazioa–) sustaturiko zenbait eskola indigenetako prestakuntza politikoaren esparruan. Baina lan hori ez da bakarrik mugatzen beharrezko gogoeta eta esperientzia-trukera, eta eskolak beren lurralde eta prozesuetan gara daitezzen ere esku hartzen du, borroka-prozesuetan aurrera egitea ziurtatzeko behar den prestakuntza politikoa emate aldera.

Beste aldetik, komunikabide propio batzuez jabetzea egon da, herri horien prozesuen zerbitzuan dauden tresna gisa. Bereziki, beren historia, beren kultura, baina, orobat, herri gisa duten identitatea berreraikitzeko, beren proposamenen defentsa politiko eta soziala egiteko eta, azken batean, beren giza eskubide indibidual eta kolektiboak aldezteko. Esparru horretan, aipatu behar dugu Bolivian telebista plurinazionala behin betiko abian jartzeko lehen pausoak eman direla dagoeneko, indigenen, nekazarien eta emakumeen antolakundeen eskutik. Baina, halaber, aipatu behar dugu CLACPI (Herri Indigenen Zinema eta Komunikazioko Koordinakundea) delakoak berekin dakarren kontinente mailako komunikazio-prozesu propioaren garrantzia; hain zuzen ere, 2015ean 30. urteurrena bete zuen, eta Herri Indigenen

JARDUNALDIAK // JORNADAS
EUTSI EDO HIL
 Herri Indigenak enpresen neokolonialismoaren aurrean
RESISTIR O MORIR
 Los pueblos indígenas frente al Neocolonialismo Empresarial

Hernani
 Biteri Kultur Etxea
 2015eko apirilak 21, 22 eta 23
 21, 22 y 23 de abril de 2015

19etan
 A las 19:00

- Herri indigenek egindako dokumentalen erakusketa
- Lurralde indigenetan jarduten diren enpresa multinazionalen analisisa eta salaketa
- Bere eskubideak defendatzen dituzten emakume indigenen partaidetzaekin
- Exposición de documentales hechos por los pueblos indígenas
- Análisis y denuncia de Empresas Multinacionales que operan en territorios indígenas
- Participación de Mujeres Indígenas que defienden sus derechos

Doako sarrera // Entrada gratuita

Informazio gehiagorako: www.mugarikgabek.org, @mugarikgabek, Mugarik-Gabek
 Antolatzailea // Organizadora: MUGARIK GABEK
 Babelak // Traduztorea: heronitio, hypercozio, Inalea
 Babelak // Traduztorea: Hernaniko, Iudala

Zinema eta Bideoko XII. Jaialdiaren barruan ospatu zen, maputxeen herrialdean, Txileko aldean zein Argentinako aldean. Azpimarratzen dugu mugimendu indigenak komunikazio propioari ematen dion izaera estrategikoa, eta halaxe islatzen da, neurri handi batean, jaialdi-bukaerako adierazpenaren pasarte batean: “Azkenik, adierazten dugu gure komunikazio-sistemak –zinema, bideoa, irratia eta komunikazio indigenaren sorkuntzazko era eta bide nagusi guztiak– orain tresnak, lanabesak eta armak direla, gure lur eta lurraldeak, gure herriak, gure kultura eta bizitza defendatzeko, Abya Yalako herri guztien bizitza eta batasuna ehunduz.

Hain zuzen ere, azken horrek lotura du 2015. urtean Mugarik Gabek arlo honetatik euskal gizartean gauzatu duen lanaren alderdietako batekin. 2013. urtearen bukaeratik, “Eutsi edo Hil” kanpaina aurrera eramán dugu, eta, labur-zurrean, kanpaina horren helburua zen, batetik, jatorrizko herrien eskubide indibidual eta kolektiboen urraketa

Consejo de Pueblos
K'ICHE'S
Por la defensa de la Vida, Madre Naturaleza, Tierra y Territorio.

Presenta el Documental:
RESISTIR O MORIR
Denuncias, visiones y propuestas de los pueblos indigenas

Fecha: 09-05-15
Lugar: Sal6n de la Municipalidad de Santa Cruz del Quiche
Hora: 9:30 am

Con la Participaci6n de:
Jes6s Gonzales de Mugarik Gabe
Lolita Ch6vez del CPK

Todos y Todas Cordialmente Invitados

salatzea eta, bestetik, garapeneko beste praktika, esperientzia, paradigma eta eredu batzuk hainbat arlotatik ezagutaraztea, eredu nagusiaren ordezkotzat alternatiba gisa. 2015. urtean, aurreko urtean gizonezko zein emakumezko zenbait lider indigenak bisita egin eta gero, azken produktu esanguratsuenetako bat aurkeztu ahal izan genuen: “Eutsi edo Hil” dokumentala, hain zuzen, bisita horietan eginiko elkarrizketa eta lanen emaitza kolektiboa. Urte honetan dokumentalaren aurkezpen publikoa eta zabalkunde handia egin zen, baita CLACPIk antolatutako Herri Indigenen Zinema eta Bideoko XII. Jaialdian ere. Kanpaina guztiak bide eman zigun gure gizartean osoko eragina izateko, erakunde, antolakunde sozial, kolektibo, ikastetxe, sindikatu eta abarrek lan eginda. Herri indigenen lurraldeetan enpresa transnazionalak izaten dituzten jardueren salaketa nabarmendu zen bereziki.

Hasieran esan dugunez, jardun beteko lana egin da 2015ean, eta 2016. urtean lan horretan jarraitzeko konpromisoa dago. Izan ere, aurrera eramango ditugun beste ildo batzuen artean, geure buruari erronkatzat jarri diogu indigena, nekazari eta emakumeen komunikazioa sendotzen jarraitzea, eta horrek lan-esparru nagusi batzuk edukiko ditu esleituta. Ildo horretan, Bolivian

telebista plurinazionala sortu eta funtzionamenduan jartzeko pauso garrantzitsuak emango dira jada, eta, horrekin batera, Euskal Herrian hainbat jarduera egingo ditugu, prozesu horiek ezagutarazte aldera eta hango eta hemengo komunikazio-esperientziak partekatzeko eta sendotzeko espazioak sortze aldera. Baina asmoa dugu, orobat, antolakunde indigenak berak sendotzen jarraitzeko, ahal dugun neurrian, haiek izanik beren prozesuetako protagonistak, nozitzen dituzten eskubide-urraketak salatzean nahiz eredu nagusiaren alternatibak sortzean, beste paradigma batzuk proposatuta, hala nola Ongi Bizitzea.

Bideoak, bira eta “Eutsi edo Hil” dokumentalaren estreinaldia. 2015eko apirilaren 18tik 24ra.



Ordukoan, lau lider indigena, emakumeak, izan genituen gure artean. Kanpaina honen –eta aurreko bi biren– emaitza bat izan zen lau bideo labur prestatzea, indigenen problematikak eta haien eskubideen etengabeko urraketaren aurreko alternatibak aurkezten zituztenak. Beste emaitza bat izan zen –neurri

batean lau bideo labur horien ondorioz– dokumental bat osatzea, kanpainaren izenburu bera emanik, problematika horietaz azterketa zabalago bat egiten zuena. Neurri handi batean, hirugarren bira horren helburua zen dokumental horren aurkezpen publiko eta instituzionala egitea, nolabait dokumentaleko protagonista zirenen eskutik. Asteazkera zehar, aurkezpen publikoak egin ziren Donostian, Basaurin, Bilbon, Gasteizen eta Hernanin. Gasteizen, “Erresistentziatik eredu berriak eratzeraz. Herri indigenen alternatiba eta proposamenak” jardunaldien barruan egin zen aurkezpena, eta Hernanin, “Eutsi edo Hil” jardunaldietan, enpresa transnazionalak indigenen lurraldeetan izaten dituzten inpaktuetan arreta handiagoa jarrita.

Jarduera-esparru horren barruan, egun horietan bilerak egin ziren erakundeekin zein mugimendu sozialekin, eta komunikabideetan kanpaina zabala eraman zen aurrera (EITB, Herri Irratia...), bisita egin ziguten lagunek berek parte hartuz.

Beste jarduera batzuk. Komunikabideak.

Bi urteotan, Herri Indigenen Arloak, batez ere kanpaina horretan zentratu egon arren, aldi berean hainbat aldiz parte hartu ahal izan du Bilbon kokaturiko komunikabideetan (irratia eta prentsa idatzia), indigenen problematika, berezko garapena izateko duten eskubidea eta haien alternatibak gai hartuta.

Prestakuntza Deustuko Unibertsitatean.

Zenbait urte badirela, Mugarik Gabeko Herri Indigenen Arloak Lider Indigenen Prestakuntza Programan parte hartu du. Programa Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak eta Nazio Batuek egiten dute.

Ildo berean, zenbait prestakuntza-jarduera eman dira Bilbon, gizarteko eta unibertsitateko eragileekin, hala nola Hegoarekin, besteak beste.



BIZITZA JASANGARRIEN ARLOA

Urte-bukaeran, Klimaren Goi Bilera izan zen Parisen. Han, nazioarteko komunitateak klima-aldaketaren aurka borrokatzeko konpromisoa hartu zuen bere gain, batez besteko temperatura globalaren igoera 1,5 °C-ra mugaturik eta berotegi-efektuko gasen isurketak murrizturik. Estatuek itun berri bat dute orain, alderdi garrantzitsuak biltzen dituen, baina nahikoa ez dena, argi eta garbi, helburu global hori lortzeko era ez baitu zehazten.

Parisen hartutako konpromisoak betetzeko, erregai fosilak utzi behar dira, eta, beraz, energiaren, nekazaritzako elikagaien eta ekonomiaren eredia eraldatu behar da. Hala ere, urte honetako gertakizunek pentsarazten digute, oso bestela, pertsonen jardunak indarrean den logikaren arabera jokatzeko jarraituko duela eta herriek –emakumeek bereziki– gero eta inpaktu larriagoak eta konpongaitzagoak nozitzen jarraituko dutela. Horren erakusgarri da, 200 herrialde planetako ingurumenaren etorkizunari buruz eztabaidatzen ari ziren bitartean, haietako batzuk erabateko opakutasunez ari zirela askotariko tratatuak negoziatzen, are kapitalismo basatiago bati bide emateko. Halakoen artean, Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoa (TTIP) dago.

Tratu horien xedea da “traba burokratikoak” kentzea merkatuetan sartzeko, hau da, enpresa transnazionalen baliabide naturalak –hala nola haziak, lurra, ura eta airea– ustiatzen jarrai dezaten are errazago bihurtzeko.

Hamaika adibidek frogatzen dutenez, enpresa transnazionalen zenbat eta babes eta botere handiagoak izan, hainbat gehiago ukatzen dira herrien burujabetza eta demokrazia, eskubideak gutxiago izaten dira, eta arriskuak, handiagoak ingurumenarentzat.

Guatemalan, nekazarien eta indigenen komunitateek jazarpena eta mehatxuak nozitzen dituzte oraindik, eta legez kanpo atxilotzen dituzte, agerregaien hedapenari edo presei aurre egiteagatik. Santa Cruz de Barillas (Huehuetenango departamendua) udalerriko biztanleak kriminalizatzen ari dira oraindik, beren lurrak eta bizibidea babesteagatik Hidralia Energía espainiar enpresaren megaproiektuaren aurrean. Kolonbian gatazkak badirau oraindik, eta haren

oinarria lurraldearen kontrolean datza, eragile armatuen interes ekonomiko eta geostrategikoak direla kausa. Bestalde, gobernuak aurrera egiten du bost lokomotorretan oinarrituriko ekonomia-garapenerako bere planean, meatzaritzaren eta energiaren arloetako ustiapena eta megaproiektuak justifikatuta horrela. Horrez gain, berriz salatu da 2015ean Chocóko zenbait elikagai-laboretan zein gune jendeztatutan airetik glifosatoa fumigatu dutela, Monsanto multinazionalak sortutako toxikotasun handiko herbizida bat.

Herrialde gehienetan uraren inguruko gatazkak daude oraindik. Badira horretarako zenbait faktore: lehortek gero eta luzeagoak izaten dira; ez dago urik lortzeko aukerarik; ibaiak eta akuiferoak kutsaturik daude, edo pribatizatu dituzte,... Horren adibide da Nikaraguako Kanal Handiaren makroproiektua. Kanal horrek herrialdea zeharkatuko du, eta Atlantikoa eta Pazifikoa lotuko ditu, nazioarteko merkataritzaren mapa geopolitikoan aldaketa eragiteko xedez. Kanal hori egiteko, Nikaragua Aintzira zeharkatu behar da, ur gezako erreserbarik handiena eskualdean. HKND txinatar enpresari eman zaion kontzesioak Nikaraguako Konstituzioko 24 artikulua hausten ditu, eta ekosisteman inpaktu atzeraezina eragingo du, lurrak desjabetzeaz eta biztanleak lekualdatzeaz gain.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da Latinoamerikako mugimendu sozialei eta antolakunde eraldatzaileei laguntza ematen jarraitzea, bai salaketan, bai eredu hau ordeztzeko alternatibaren bilaketan. Horrexegatik, Guatemalan eta Kolonbian jarraitzen dugu, beren lurraldeak eta ondasun naturalak defendatzen dituzten antolakunde indigenekin dugun aliantzari eutsiz.

Nabarmendu behar dugu, orobat, Kubako Animalia Ekoizpeneko Elkarteari lagun egiten jarraitu dugula, landa-eremuan elikadura-burujabetza eta genero-ekitatea sustatzen. Estrategia hori, nagusiki, egitura sozioproduktiboak sendotzera bideraturik dago (azpiegiturak, ureztatze-sistemak, ekipamenduak, gaitasun teknikoak), Cienfuegos eta Santiago de Cuba probintzietako biztanleen elikadura-beharrizanak betetzen dituzten ekoizpenak dibertsifikatuta eta hobetuta horrela. Era berean, emakumeek erabakitzeke espazioetan eta enplegu-aukeretan parte-hartzea bermatzearen aldeko apustua egiten da.

Nikaraguan Xochilt Acalt antolakundeak bultzatutako programa gehienetan laguntzen jarraitzen dugu. Programa horien artean daude herritarren parte-hartzea sendotzea, Larreynaga-Malpaisillo udalerriko eragileen herritartasuna generoaren, belaunaldien eta ingurumenaren ikuspegitik eraikitzea –2015ean Telica udalerrira ere zabaldua– eta emakumeen autonomia ekonomikoa baliabide ekonomikoak eta azpiegiturak erabiltzeko eta kontrolatzeko aukeraren bidez handitzea, ekoizleei ekoizpen-eredu dibertsifikatuak eta jasangarriak garatzen laguntzea, eta larrialdi-planak aplikatzea hondamendi naturalak direnean. Halaber, Axayacatl emakume-antolakundeari laguntzen diogu ahalduzko ekonomiko eta pertsonaleko prozesuetan, Masaya udalerriko landa-eremuko emakumeekin, antolakunde horrek berak bultzatuta.

Latinoamerikako prozesuetan laguntza ematen jarraitzeaz gain, urte honetan zehar beste kolektibo batzuetan sarean lan egiteko apustuari eutsi diogu, sistema kapitalistaren eta gure kontsumo-ereduaren kausak eta ondorioak salatuz, toki-mailan nahiz maila globalean, eta bizitzeko eta kontsumitzeko eredu alternatiboak sustatuz.

Alternatiben Herrian parte hartu genuen; aldarrikapen-ekitaldi horren helburua zen beste gizarte-eredu bat, bizitza erdigunean jarrita, eraikitzeko dauden alternatibak ezagutaraztea eta gizartea mobilizatzeko eta aktibatze beharra nabarmentzea, trantsizio sozial eta ekologikoa egia bihurtzeko. Mugarik Gaberi dagokionez, *TTIP 2035: Odisea para las mujeres* (“TTIP 2035: Odisea emakumeentzat”) bideoa proiektatu zuen, eta ondoko eztabaida dinamizatu zuen, Europar Batasunaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko merkataritza askeko tratatua izenpetzeak emakumeen bizitzan eta eskubideetan izango dituen inpaktuak ardatz harturik..

Halaber, **“Hautestontziak landatuko ditugu” kanpainan** parte hartu genuen, Landa Plataformak bultzatuta, hauteskunde-kanpainaren barruan, alderdi politikoei beren kanpainetan konpromisoak har zitzaten, landa-mundu bizi baten eta elikadura-burujabetzaren alde.

“TTIPari Ez!” kanpainan parte hartu genuen. Sare-espazio bat da, EHko hainbat kolektibo barne hartzen dituena, eta 2015ean zehar eragina izateko eta mobilizatzeko ekintzak antolatu ditu, gaur egun negoziatzen ari diren merkataritza askeko tratatuak onartzearen aurka: TTIP, CETA eta TISA.



Kanpaina horren barruan, Gipuzkoan talde bat eratzea bultzatzen hasi ginen. Urteko azken hiruhilekoan, antolakunde, sindikatuz, mugimendu sozialez eta banako pertsonaz osaturiko talde bat finkatzea lortu genuen. Horiek guztiak Gipuzkoan alternatibak ezagutarazi eta proposatzeko prest zeuden, tratatua izenpetzea geldiarazte aldera. Batzorde txostengilea antolatu genuen, eta *EH TTIPari EZ!* kanpainako zenbait kidek partu hartu zuten; han, sektoreka, Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoaren tratatua abian jartzearen ondorioak azaldu zituzten.

Gipuzkoan lantaldea eratzea bultzatzearekin bat, Donostiako Zero Pobrezia plataformako kide gisa, TTIParen ondorioak lantzea erabaki genuen, plataformaren 2015eko eta 2016ko jardueren ardatz nagusitzat hartuta. Hala, zineforumak, eztabaidak, bizi-martxa, eta kaleko ekintzak antolatu genituen, eta haietan TTIPa eta haren ondorioak ezagutarazi genituen, emakumeen, gizonen eta naturaren eskubideen urraketari zegokionez, pobrezia multidimentsionalarekiko loturak ezarriz.

Halaber, 2015ean **“III. topaketa ekosozialak: trantsizio ekosozialak larrialdi ekologikoaren eta premia sozialaren aurrean”** antolatzen dituen sarean parte hartzen hasi ginen, beste GGKE, sindikatu, mugimendu sozial eta alderdi politiko batzuekin batera. Topaketok Bilbon egingo dira, 2016ko ekainean.

“Bide Berriak” lehiaketako epaimahaian parte hartu geunen. Bizilurrek eta Ehne Bizkaiak antolatzen dute lehiaketa, eta haren helburua da elikadura-burujabetzari buruzko gogoeta sustatzea, adierazpen artistikoaren eta ikus-entzunezko komunikazio-tresnen bidez. Lehiaketa horretan, Mugarik Gabe **“Feminismo eta elikadura-burujabetza”** kategoriarako epaimahaian egon zen.

Nabarmendu nahi dugu, halaber, urte honetan zehar **bitzita jasangarritzat ulertzen ditugunen inguruko eraikuntza kolektiboko prozesu** bat abiarazi eta bultzatu dugula, tartean Euskal Herriko eta Latinoamerikako askotariko kolektiboak daudela (mugimendu sozialak, sindikatuak, GGKEak, ekonomia solidarioko kooperatibak), elikadura-burujabetzaren, zinketen, ekonomia-birlokalizazioaren eta energia-ereduaren aldetik gure aldarrikapenak zein diren definitzen. Lan hori 2016an egitekoak diren jardunaldi batzuetan aurkeztuko da, eta gure agenda zehazten lagunduko digu, etorkizunari begira.

Marienean, Basauriko Emakumeen Etxean, **“II. Basauriko Herri Eskola Globala: eraldaketarako alternatibak eraikitzen”** bigarren aldiz egin genuen. Prestakuntza eraldatzeko eta alternatibak sendotzeko tresnatzat ulertuta, ikastaro bat antolatu genuen toki-mailako zein maila globaleko ikuspegi batetik, Euskal Herriko eta Latinoamerikako emakumeen eta nekazarien mugimenduaren alternatiba zehatz batzuek protagonismo berezia izan zutela.



Era berean, lankidetzan aritu gara Setem Hego Haizearekin **“Desazkundean, barne-hartzean eta feminismoan oinarritutako garapen baterako estrategiak”** ikastaroa antolatzeko. Ikastaro hori 2015ean hasi, eta 2016an bukatuko da, eta haren helburua da ikastaroan parte hartzen dutenen eraldaketa pertsonal eta sozialean laguntzea. Irakasleak arlo akademikokoak zein mugimendu sozialetakoak dira, Euskal Herrikoak, estatukoak eta nazioartekoak.

Bizitza Jasangarrien Arloak zenbait **prestakuntza-jarduera** eman zituen, hala nola landa-emakumeei zuzenduriko genero-lantegia, HAZIK eta Landa Eremuko Emakume Batzordeak antolatutakoa, Etxebarri Dibiñan (Araba); TTIP Europar Batasunaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko merkataritza askeko tratatua izenpetzeak emakumeengan izango lituzkeen inpaktuei buruzko prestakuntza-jarduerak VsF-ren bidez egin ziren Arkautiko (Araba) eta Derioko (Bizkaia) nekazaritza-eskoletan; MGI-k UPV/EHUn antolaturiko monografikoaren barruan, elikadura-burujabetzari eta generoari buruzko prestakuntza-jarduera bat egin zen.

Zentzuz Kontsumitu partzuergoan jarraitu genuen Medicus Mundi Arabarekin eta Setem Hego Haizearekin batera. Urte honetan ahaleginak Ekonomia Solidarioaren III. Azoka aurrera eramaten bildu genituen, Vitoria-Gasteizen, REAS Euskadirekin batera. Azokan hainbat erakunderen 40

standetik gora izan genituen, informaziokoak zein produktu eta zerbitzuen salmentakoak, eta alternatibak eskaini zizkiguten arlo askotan: finantza etikoak, garraio jasangarria, bidezko merkataritza, energia berriztagarriak, eraikuntzak, arropa, mezularitza, ostalaritza, eta laneratze eta gizarteratzea, besteak beste. Horrez gain, Zentzuz Kontsumitutik abaguneaz baliatu ginen telefono mugikorretarako doako aplikazio bat jendaurrean aurkezteko, Vitoria-Gasteizko kontsumo arduratsuari buruzko kale-izendegia, hain zuzen. Aplikazioak tokiko ekimenak biltzen ditu, tokikoak, ekologikoak, bidezko merkataritzakoak, birziklatuak eta bigarren eskukoak diren produktuak eta/edo zerbitzuak aurkitzeko.

Donostian, kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailerako (KKAE) aukerak gizartean ezagutarazi eta ikusgai bihurtzeko eta haietaz sentsibilizatzeko proposamenari jarraipena eman diogu, **Saretuz** (Donostiako Kontsumo Arduratsuko Sarea) sarearen bidez. Emaús Fundazio Sozialarekin batera, 2011n Saretuz sarea sortu genuenetik, Donostian eta Gipuzkoan kokapena duten ia hamabost antolakunde, mugimendu sozial, kontsumo-talde, elkarte eta fundaziok osaturiko sare hori dinamizatzen aritu



gara. Hasteko, Donostian KKAEaren alternatiba praktikoak ikusgai bihurtzen lan egin genuen; bigarren urtean, alternatiben barruan generoaren eta kontsumoaren arteko aukerak eta harremanak sartu genituen; hirugarren urtean, kolektibitatearen gakoa eta parte-hartzezko garapen komunitarioko prozesuetan KKAEaren sustapena txertatzeko beharra gehitu genituen. Une horretan, 15 antolakundeen parte-hartzearekin, KKAeko alternatiba praktikoei buruzko kale-izendegi bat prestatzen hasi ginen. Laugarren urtean, 2015ean, herri-kultura, jaiak eta ospakizunak sartu ditugu, eta halakoek kontsumoarekin duten zuzeneko harremana.

Horri dagokionez, Saretuz sarearen “Jai Giroan Kontsumo Arduratsua” IV. Jardunaldietan, irailean, aukera izan genuen jakiteko Sanferminak Berdintasunean, BerdeBidea, Kilometroak, Munduko Arrozak, jaiak jarrera feministatik antolatzea eta ospatzea eta kideko esperientziak ospakizunak edo jaiak antolatzeko era alternatibo baten aldeko apustua egiten duten ekimenak

direla. Saretuz sarearen V. urteari begira (2016) KKAEak kultura alternatiboekin dauzkan harremanak landuko ditugu.

GENERO ARLOA

2015. urtea oraindik oroitzapen onak genituela bukatu genuen, **Emakumeen Mundu Martxaren IV. Nazioarteko Ekintzaren** itxiera zela-eta. Martxan, gure proposamen eta salaketa asko Euskal Herriko –baina Europako eta mundu guztiko ere– mugimendu feministekin artikulatzeko lanean sendotzen ziren. Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa (EHMM) Emakumeen Mundu Martxaren barruan dago; azken horrek, 2000. urteaz geroztik, maila globaleko ekintzak planteatzen ditu, demokrazia, esperantza, bakea eta berdintasuna aldarrikatzeko. 2015ean zehazki, IV. nazioarteko ekintza definitu da, “gure gorputzak, gure lurraldeak” goiburua emanda, eta lau jarduera-ardatz ditu: indarkeria transistemikoak; bizitzaren jasangarritasuna; gorputzak eta sexualitateak; sare-lana eta dibertsitatearen kudeaketa. Ardatz horiek zuzeneko lotura dute Mugarik Gaben ditugun apustuak askorekin, are gehiago eraldaketa globaleko eta beste batzuekin artikulatzeko ikuspegia izanik.




2015. urtean, beste kolektibo batzuekin ere landuta geneukanez, lan-apustu hau sendotuz joan da, jada ikasi dugulako beharrezkoa dela era kolektiboan lan egitea eta garrantzitsua dela ahaleginak beste batzuekin artikulatzea, gure aldaketa-apustuek zilegitasun eta inpaktu handiagoak izan ditzaten. Zehazki, ikuspegi feminista sartzeko eta emakumeen eskubideak mundu guztian betetzea berma daitezen lan egiteko apustuak tokiko zein eskualdeko parte-hartze espazioak finkatzera eraman gaitu; **EHMMn parte hartzeaz gain, Gasteizko, Bilboko eta Donostiako**


koordinakunde feministetan dugun parte-hartzea finkatu dugu.

Horrez gain, azaroan aukera izan genuen **Beltzez Jantzitako Emakumeen XVI. Nazioarteko Topaketan** parte hartzeko (Betiko fundazioari eta Calcuta Ondoan-i esker), eta horrek indarkeria

matxisten aurkako borrokan egiten dugun apustua sendotu zuen, indarkeria horren agerpen guztietan, munduko gerren kausen salaketarekin lotuta.



Azaroan, orobat, **Indarkeria Matxisten aurkako Estatu Martxan** parte hartu genuen. Estatu mailako lehen manifestazioa izan zen, eta azaroaren 7an egin zen, Madrilén.



Nazioarteko lankidetzako antolakunde gisa, gure apustua da lankidetzaren politiketan ikuspegi feminista txertatzea, eta apustu hori gauzatu da ekarpenak egiteko hainbat espaziotan parte hartzen jarraituz, araudiak osatzeko, lankidetzaren arloko murrizketek emakumeen bizitzan dituzten inpaktuak ikusgai bihurtzeko, eta genero-ikuspegia GGKEetan era eraldatzailean txertatzeko apustua egiteko, beste jarduerak askoren artean. Hori guztia, beti bezala, beste batzuekin batera

egin dugu, eta txosten honetan nabarmendu nahi dugu **Euskadiko GGKEen Koordinakunde**ko Genero Taldean eta Lankidetzaren Euskal Kontseiluan ikuspegi horretatik parte hartzen jarraitu dugula. Urte honetan, halaber, Lankidetzeta Feminista Global baten aldeko Aliantza sendotzen jarraitu dugu; han, helburu horiek berak dituzten beste GGKE batzuekin elkartzen gara, estatu mailan.



Aurreko beste urte batzuetan bezala, Latinoamerikako aliatuak, antolakunde feministak eta indigenen eta nekazarien antolakundeak, aintzat hartzen jarraitu nahi dugu, prozesu eraldatzaileen –eta, orobat, feministen– aldeko apustuaren bidean bidaide dauzkagula oraindik. Haiekin ikasketak eta aldaketarako estrategiak partekatzen jarraitzen dugu. Ildo horretan, Mugarik Gabetik konpromisoa atxikitzen dugu berariaz **Latinoamerikako emakumeen eta feministen mugimendua sendotzen laguntzeko, eta horixe jarraitzen dugu egiten Nikaraguan, El Salvadorren, Guatemalan eta Kolonbian**. Konpromiso horren osagarri, genero-ikuspegia antolakunde mistoetan txertatzea bultzatzen da, eta gauden herrialdeetako emakumeen giza eskubideen urraketa salatzeke berariazko prozesuak egiten dira, alternatibak eraikitzeaz gain.

Ez dugu nahi aipatu gabe utzi 2015ean ere aurrera egin duela Mugarik Gaben gauzatzen ari garen **ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketarako prozesuak**, zehazkiago, gure eguneroko praktketan gabeziak atzemanaz eta aldatzeko proposamenak eginez, talde-lan ez-patriarkala sustaturik. Gainera, urte honetan fase berri bati ekin diogu, prozesu hori era publikoagoan osatzen jarraitzeko asmoz, ekitatearen

EL TRABAJO EN EQUIPO NO PATRIARCAL

Herramienta de cambio hacia organizaciones con
una apuesta feminista de transformación social

 MUGARIK GABE
www.mugarikgabe.org



aldeko antolakuntza-aldaketa edozein antolakunderen ezinbesteko elementutzat zabaltzeko, baldin era koherente batean aurrera eraman nahi baditu eraldaketa sozialeko prozesuak, bai eta jardunbide egokiak partekatzeko ere, beste batzuekin batera eta esperientzia zehatzetan oinarriturik eraikitzeko lagungarriak izan dakizkigun.

Emakumeen giza eskubideak

Urteak daramatzagu aldarrikatzen eta salatzen, *“Enfrentamos todas las violencias machistas/Patriarkaturik gabe denok jabe”* gure kanpainaren bidez, ez dela bakarrik beharrezkoa giza eskubideak nazioarteko zuzenbide-tresnetan jasota egotea, baizik eta estatuek haiek lege bihurtzea eta betetzea, tratatuak emakumeen eskubideen defentsan nola mamitzen diren ikustea. Halaber, politika eta lege berriak garatzeaz gain, bada beharrezkoa borondate politikoa izatea eta berdintasunaren alorrean zein emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko dagoeneko dauden politikak aurrekontuz hornitzea, prebentzioari dagokionez bereziki.



Funtsezko beste faktore bat da geure burua eskubide-subjektutzat jotzea, hori ezinbestekoa baita giza eskubideen errespetua aldarrikatzeko. Hainbat estatu eta gizartetan, inpunitatea sustatzen duten eta emakumeen ahotsa zalantzan jartzen duten mezuak bukatu behar dira, emakumeei zilegitasuna kentzen eta ahalduntzea eragozten baitiete, haien justizia-eskakizunei ez entzun

egiteaz gain.

Emakumeen aurkako indarkeria normalizatzea eta ikusezin bihurtzea funtsezko faktorea izan da indarkerien continuumari eusteko. Indarkerien biktima diren emakumeen hitza ez balioesteak eta haiek berek beren burua biktimatzen ez hartzeak eragiten dute biktimazio-gertaerei buruz egiten dituzten kontakizunak zalantzan jar daitezela.

Indarkeriaren tamainak eta hedadurak batez ere harridura eta espantua eragiten dizkiote entzuten dituenari. Indarkeriazko esperientzia horiek entzun eta aintzat hartu behar dira, ezin baitira ezbaian jarri emakumeek argiro eta irmoki kontatutako lekukotasunak.

Lan-ildo horretan, 2015. urtearen hasieran **emakumeen bizitza-kontakizunak berreskuratzeko** prozesu bati ekin genion Hegoaren laguntzarekin, eskubideak urratu zaizkien Latinoamerikako zein Europako hainbat emakumeren bizitza-kontakizunak ikerlan batean biltzeko eta, kontakizunotan oinarriturik, urraketa horien guztien egiturazko kausei buruzko azterketa-agiri bat osatzeko. Ikerlanaren hasieran, hainbat antolakunderekin koordinatu ginen, El Salvadorren, Guatemalan, Kolonbian eta EHn, lekukotasuna emango zuten emakumeekin harremanetan jartzeko. Guztira, 30 emakume bihoztunek parte hartu dute, 30 emakumek berriz ere aurre egin diete bizitako izugarrikeriei, gehiago gerta ez daitezen, justizia, ordaina eta ez errepikatze bermea eskatzeko egiten ari diren bidean.


Prozesuan zehar, beste prozesu batzuk ere ezagutu ditugu, Latinoamerikakoak batez ere; hala, txosten hau idazten ari garen bitartean, Guatemalan Sepur Zarco auziaren epaiketa egiten ari da, eta Kolonbiako gatazka armatuaren biktima diren emakumeen egiari buruzko txostena –Emakumeen Egia eta Oroimeneko Batzordearen proiektuaren barrukoa– osatzen ari da



Kolonbiako Emakumeen Ibilbide Baketsua mugimendua, giza eskubideen urraketa larriak nozitu dituzten herrialdeko eskualde eta etnia guztietako 1.000 emakumek baino gehiagok lehen pertsona kontatutako esperientzietan oinarriturik. El Salvadorren, bestalde, 17en kanpaina dago (jada “17ak eta +” deritzo), berezko abortuengatik 30-40 urteko zigorrekin espetxeratutako emakumeak babesteko. Eta beste hainbeste esperientzia gehiago, ezagutuak eta zabalduak izatea merezi dutenak, emakumeen eskubideen defendatze aldera.

Emakumeen bizitza-kontakizunak berreskuratzeko prozesu horretaz gain, 2015ean **“Gure praktiketarik ikasten” auzitegiaren sistematizazioa** bukatu genuen, prozesu horren ondoriozko ikasketa guztiak bilduta, gaztelaniaz eta euskaraz kontsultatzeko moduan.

www.mugarikgabe.org/rederradicacionviolenciasmachistas/wp-content/uploads/sites/2/2015/07/MugarikSistematizazioa.pdf







Halaber, emakumeen eskubideak defendatzeko beste lan-ildo batzuk gauzatu ditugu, ekintza puntualagoekin; esaterako:

Dantzan: Logros Feministas por el derecho a decidir dokumentala

Abortuari buruzko dokumental bat grabatu genuen Euskal Herriko Abortatzeko Eskubidea plataformarekin batera, non gu ere bagauden. Dokumentalean, Euskal Herrian abortatzeko eskubidearen alde izandako borroken eta lorpenen ahotsa jasotzen dugu, eta ikusgai jartzen ditugu.

“Matxismoak hil egiten du. Eta zur zer egiten duzu” ekintza. Sare sozialetan eta komunikabideetan eraman zen aurrera, herritarrak –banaka zein kolektiboki– ohartarazteko emakumeek bizi dituzten indarkeria matxistez, ekintzara dei eginda.



“Indarkeria matxisten begirada interseksionala” jardunaldia

Ezin dugu alde batera utzi ez emakumeen aniztasuna, ez haietako bakoitzak bizi izaten dituen egoeren aniztasuna, eta, hortaz, aurre egin behar dieten indarkeria matxistaren askotariko erak ere ez.

Parte-hartzaileak: Las OTRAS, talde feminista eta arrazismoaren aurkakoak; Eginaren Eginez, desgaitasun fisikoa duten pertsonen inklusioa lortzeko elkarteak; eta Bilboko Sare Lesbianista.

2011n abiarazitako **“Desen-rolatu”** zaitez prestakuntzako ikastaroa egiten jarraitu genuen. Urte honetan, Vitoria-Gasteizko Irakasle Eskolan egiteaz gain, Donostian ere eman zen. Ikastaroaren

xedea da gazte-jendea rol sexistak aldatzeko beharraz kontzientziatzea, errealitatearen genero-azterketa bat eginez eta errealitate horren kausetan sakonduz. Teorikoagoak diren gogoetekin batera, ikus-entzunezko lantegiak ere egiten dira, eta beren ikasketa guztiak praktikan jartzen dituzte bideo bat sortuz.

Gazteekin orobat, berriz eman genuen *Desenkadenarte* antzerki-lana Amurrion. Emanaldira 250 ikasle baino gehiago joan ziren, emakumeek aurre egin beharreko indarkeria ekonomikoaz gogoeta egiten jarraitzeko.

Nabarmendu nahi dugu urte honetan estatu mailako sare bat bultzatzeko egindako lana, **emakumeen eskubideak defendatzeko eta indarkeria matxistak desagerrarazteko**. Azterketak, estrategiak eta batera lan egiteko aukerak partekatzeko xedez sortu da sare hau, eragin politiko handiagoa izate aldera. Proposamenak bi ardatz nagusi ditu:

Indarkeria matxisten gainean eragin politikoa izateko estrategiak trukatu eta aztertzeko espazioak sortzea.

Eta kolektiboen arteko artikulazioa sendotzea, lurraldeka eta/edo Estatu Espainolean oro har, eragina izateko eta baterako ekintzetarako agenda bat ezartzeko.

Guztira 4 topaketa egin ziren, lehena Euskal Herrian, eta gero Bartzelonan, Madrilen eta Malagan, “Emakumeen eskubideak defendatu eta indarkeria matxistak desagerrarazteko ikaskuntza espazioak”

Espazio horien helburua izan da –indarkeria matxisten egoerari buruzko diagnostiko bat egitea baino gehiago– eskubide-urraketa hori konpontzeko dauden muga eta zailtasunen inguruan entitateek egiten dituzten balorazioak partekatzea, bai eta beren esperientziaren arabera beharrezkotzat jotzen dituzten aldaketarako proposamenak ere.


Bukaerako sistematizazio-topaketa bat egin zen Bilbon, “Emakume ugari borrokalari, indarrak batuz indarkeria matxisten kontra” izenburuz. Espazio hori funtsezkoa izan zen indarkeria matxisten egoerari buruzko azterketa bateratua egiteko, arretaren, prebentzioaren, zuzenbide eta legegintzaren nahiz eragin politikoaren aldetik. Azterketa horretan eta aurretik atzemandako gabezietan oinarri harturik,



indarkerien aurkako borrokan dagoeneko abian jartzen ari diren zenbait estrategia azertu

genituen (osoko arreta, salaketa egiteko eta gizartea mobilizatzeko era berriak...). Espazio horretara joan ziren aurreko topaketak egin ziren lurralde guztietako kolektibo feministak zein indarkeriaren aurka borrokatzen diren kolektiboak, bai eta Euskal Herriko taldeen ordezkariak ere; hortaz, azterketarako espazioa ez ezik, trukerako eta artikulaziorako espazioa ere izan zen. Prozesu horretan guztian, 100 kolektibo baino gehiagoko (kolektibo feministak gehienbat) 200 emakumek baino gehiagok parte hartu dute.

Bilboko sistematizazio-topaketaren ondoren, adierazpen bat egin zen, 100 antolakunderen eta banako 800 pertsonaren baino gehiagoren babesa jaso zuena. Adierazpena jendaurrean aurkeztu zen eta erakunde publikoei helarazi zitzairen. Buruturiko prozesuaren informazio guztia eta argitaraturiko materialek hemen daude eskuragarri: www.mugarikgabe.org/rederradicacionviolenciasmachistas/



2015ean, Euskal Herriko Genealogia Feministari buruz egindako argitalpenean, Mugarik Gabe lankidetzaren eta hezkuntzaren alorrean nabarmendu beharreko antolakunde gisa agertu zuten.

2014KO KONTU-IKUSKAPENA

ANEXO II

MUGARIK GABE

CUENTA DE RESULTADOS DE PYMESFL CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE DE 2014 Y 2013

	Nota	2014	2013
A EXCEDENTE DEL EJERCICIO			
1.			
Ingresos de la actividad propia	(12)	142.751,37	107.663,86
a) Cuotas de asociados y afiliados		24.869,25	24.280,01
c) Ingresos de promociones, patrocinadores y colaboraciones		6.936,28	8.225,03
d) Subvenciones, donaciones y legados imputados a excedente del ejercicio		76.269,66	63.821,46
e) Reintegro de ayudas y asignaciones		34.676,18	11.337,36
Ventas y otros ingresos ordinarios de la actividad mercantil		10.146,09	7.937,00
Gastos por ayudas y otros		(1.739.423,26)	(2.269.031,85)
a) Ayudas monetarias		(1.703.915,14)	(2.256.873,76)
c) Gastos por colaboraciones y del órgano de gobierno	(12)	(23,00)	(122,70)
d) Reintegro de subvenciones, donaciones y legados		(35.485,12)	(12.035,39)
Aprovisionamientos	(12)		(100,00)
Otros ingresos de explotación		8.314,51	4.369,62
Gastos de personal	(12)	(414.987,33)	(396.922,03)
Otros gastos de la actividad	(12)	(576.265,13)	(461.050,33)
a) Servicios exteriores		(575.918,78)	(459.351,81)
b) Tributos		(346,35)	(155,77)
c) Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales		-	(1.542,75)
Amortización del inmovilizado	(5)	(16.395,08)	(17.016,58)
Subvenciones, donaciones y legados de capital traspasados al resultado del ejercicio	(13)	2.842.148,55	3.034.088,42
Otros resultados	(12)	224,12	4.574,40
A.1) EXCEDENTE DE LA ACTIVIDAD (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13)		256.513,84	14.512,51
Ingresos financieros			12.011,82
Gastos financieros		6.872,19	(4.001,51)
Diferencias de cambio		(422,69)	
Deterioro y resultado por enajenaciones de instrumentos financieros		-	(852,76)
A.2) EXCEDENTE DE LAS OPERACIONES FINANCIERAS (14+15+16+17+18+19)		6.449,50	7.157,55
A.3) EXCEDENTE ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2)		262.963,34	21.670,06
D) RESULTADO TOTAL, VARIACIÓN DEL PATRIMONIO NETO EN EL EJERCICIO		262.963,34	21.670,06

MUGARIK GABE

2014KO ETA 2013KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIETAKO IAGETE-EN EMAITZA-KONTUA

A EKITALDIKO SOBERAKINA
2013

Oharra 2014

1. Berezko jardueraren diru-sarrerak

- a) Elkarteko kide eta afiliatuen kuotak
- b) Sustatzaileen, babesleen eta laguntzaileen sarrerak
- d) Ekitaldiko soberakinari egotzitako laguntzak, dohaintzak eta legatuak
- e) Laguntzen eta esleipenen itzulketa

2. Salmentak eta merkataritza-jardueraren beste diru-sarrera batzuk

3. Laguntzen eta beste batzuen ondoriozko gastuak

- a) Diruzko laguntzak
- c) Lankidetzen ondoriozko eta gobernu-organoen gastuak
- d) Diru-laguntzen, dohaintzen eta legatuen itzulketa

6. Hornikuntzak

7. Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk

8. Langileria-gastuak

9. Jardueraren beste gastu batzuk

- a) Kanpoko zerbitzuak
- b) Tributuak
- c) Merkataritza-eragiketen ondoriozko hornikuntzen galerak, narriadura eta aldaketa

10. Ibilgetuaren amortizazioa

11. Ekitaldiko soberakinera intsuldatutako kapitaleko laguntzak, dohaintzak eta legatuak

14. Beste emaitza batzuk

A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13)

15. Finantza-sarrerak

16. Finantza-gastuak

18. Truke-aldeak

19. Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza

A.2) FINANTZA-ERAGIKETEN SOBERAKINA (14+15+16+17+18+19)

A.3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA (A.1+A.2)

I) ONDARE GARBIAREN EKITALDIKO ALDAKUNTZAREN EMAITZA, GUZTIRA

MUGARIK GABE

BALANCE DE PYMESFL AL CIERRE DEL EJERCICIO 2014 Y 2013

		ACTIVO			PASIVO NO CORRIENTE		
		2014	2013	Nota	2014	2013	Nota
A) ACTIVO NO CORRIENTE		137.410,90	153.753,01		6.201.284,26	4.511.721,43	
I.	Inmovilizado intangible.	49,26	64,40	(5)	926.441,87	663.478,53	(10)
III.	Inmovilizado material	136.341,64	152.168,61	(5)	25.280,53	25.280,53	
VI.	Inversiones financieras a largo plazo	1.020,00	1.520,00	(8)	373.742,85	373.742,85	
B) ACTIVO CORRIENTE		6.150.616,43	4.469.100,83		5.274.842,39	3.848.342,90	
II.	Usuarios y otros deudores de la actividad propia	90.225,31	24.730,24	(6)	20.029,18	24.826,68	(9)
III.	Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar	3.391.200,17	2.714.954,94		19.729,18	24.826,68	
V.	Inversiones financieras a corto plazo	206.000,00	31.408,23	(8)	300,00	-	
VI.	Periodificaciones a corto plazo	238,45	234,31				
VII.	Efectivo y otros activos líquidos equivalentes	2.462.952,50	1.697.773,11				
TG. TOTAL ACTIVO		6.288.027,33	4.622.853,84		6.288.027,33	4.622.853,84	
C) PASIVO NO CORRIENTE					66.713,89	86.305,73	
II.	Deudas a corto plazo				4.985,97	5.003,52	(9)
1.	Deudas con entidades de crédito				5.138,46	5.156,01	
3.	Otros deudas a corto plazo				(152,49)	(152,49)	
IV.	Beneficiarios - Acreedores				(8.750,23)	(0,23)	(7)
V.	Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar				70.478,15	81.302,44	
2.	Otros Acreedores				70.478,15	81.302,44	
TG. TOTAL PASIVO NO CORRIENTE					66.713,89	86.305,73	

MUGARIK GABE

2014KO ETA 2013KO EKITALDIEN BUKAERAKO IAGETE-EN BALANTZEA

Aktiboa 2013	Oharra 2014	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA 2013	Oharra 2014
A) Aktibo ez-arrunta		A) ONDARE GARBIA	
I. Ibilgetu immateriala		A-1) Funts propioak	
		I. Funts soziala	
		1. Funts soziala	
III. Ibilgetu materiala		II. Erreserbak	
		III. Aurreko ekitaldietako soberakinak	
VI. Epe luzeko finantza-inbertsioak		IV. Ekitaldiko soberakina	
		A-2) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	
		B) PASIBO EZ-ARRUNTA	
		II. Epe luzeko zorrak	
		1. Kreditu-erakundeekiko zorra	
		3. Epe luzeko beste zor batzuk	
B) AKTIBO ARRUNTA		C) PASIBO ARRUNTA	
II. Erabiltzaileak eta berezko jardueraren beste zordun batzuk		II. Epe laburreko zorrak	
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko beste zor batzuk		1. Kreditu-erakundeekiko zorra	
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak		3. Epe laburreko beste zor batzuk	
VI. Epe laburreko periodifikatzeak		IV. Onuradunak – Hartzekodunak	
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak		V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko beste zor batzuk	
		2. Beste hartzekodun batzuk	
GO. AKTIBOA, GUZTIRA		GO. ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	

INFORME DE AUDITORÍA INDEPENDIENTE DE CUENTAS ANUALES DE PYMESFL

A la Asamblea General de la Asociación Mugarik Gabe:

Hemos auditado las cuentas anuales de PYMESFL adjuntas de la Asociación Mugarik Gabe, que comprenden el balance de PYMESFL a 31 de diciembre de 2014, la cuenta de resultados de PYMESFL, y la memoria de PYMESFL correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

Responsabilidad de los administradores en relación con las cuentas anuales de PYMESFL

La Junta Directiva es la responsable de formular las cuentas anuales de PYMESFL adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Asociación Mugarik Gabe, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, que se identifica en la Nota 2 de la memoria abreviada adjunta, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales de PYMESFL libres de incorrección material, debida a fraude o error.

Responsabilidad del auditor

Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las cuentas anuales de PYMESFL adjuntas basada en nuestra auditoría. Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la auditoría de cuentas vigente en España. Dicha normativa exige que cumplamos los requerimientos de ética, así como que planifiquemos y ejecutemos la auditoría con el fin de obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales de PYMESFL están libres de incorrecciones materiales.

Una auditoría requiere la aplicación de procedimientos para obtener evidencia de auditoría sobre los importes y la información revelada en las cuentas anuales de PYMESFL. Los procedimientos seleccionados dependen del juicio del auditor, incluida la valoración de los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales de PYMESFL, debida a fraude o error. Al efectuar dichas valoraciones del riesgo, el auditor tiene en cuenta el control interno relevante para la formulación por parte de la entidad de las cuentas anuales de PYMESFL, con el fin de diseñar los procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad. Una auditoría también incluye la evaluación de la adecuación de las políticas contables aplicadas y de la razonabilidad de las estimaciones contables realizadas por la dirección, así como la evaluación de la presentación de las cuentas anuales de PYMESFL tomadas en su conjunto.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión de auditoría.



Opinión

En nuestra opinión, las cuentas anuales de PYMESFL adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Asociación Mugarik Gabe a 31 de diciembre de 2014, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

MAZARREDO AUDITORES, S.L.



Fdo.: Ignacio Cobia Agustín
22 de junio de 2015
Alameda Mazarredo 7, Pral. Izq
48001 Bilbao
Miembro nº S-1.643 del Registro Oficial de Auditoría de Cuentas



IAGETE-EN URTEKO KONTUEN IKUSKAPENARI BURUZKO TXOSTEN INDEPENDENTEA

Mugarik Gabe elkartearen Batzar Nagusiari:

Txosten honi erantsitako Mugarik Gabe elkartearen IAGETEen urteko kontuak ikuskatu ditugu, 2014ko abenduaren 31ko IAGETEen balantzea, IAGETEen emaitza-kontua, eta IAGETEen urteko txostena barne hartuta.

Administratzaileen erantzukizuna IAGETEen urteko kontuen inguruan

Zuzendaritza Batzordea da erantsitako IAGETEen urteko kontuak formulatzeko erantzukizuna duena, Mugarik Gabe elkartearen ondarearen, finantza-egoeraren nahiz emaitzen irudi zehatza adierazteko moduan, erakundeari Espainian aplikatzekoa zaien finantza-informazioari buruzko arau-esparruarekin bat etorrita (erantsitako txosten laburtuaren 2. oharrean zehaztua), eta IAGETEen urteko kontuak akats materialik gabe –iruzurrez edo hutsegitez– prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen barne-kontrolaren arabera.

Kontu-ikuskariaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da erantsitako IAGETEen urteko kontuei buruzko iritzi bat adieraztea, geure kontu-ikuskapenean oinarri harturik. Kontu-ikuskapena Espainian kontu-ikuskaritzara arautzen duen indarreko araudiaren arabera egin dugu. Araudi horrek eskatzen du etika-eskakizunak bete ditzagula, eta kontu-ikuskapena planifika eta gauza dezagula IAGETEen urteko kontuek akats materialik ez dutelako arrazoizko segurtasuna lortzeko.

Kontu-ikuskapen batean beharrezkoa da prozedura batzuk aplikatu daitezkeen, ikuskapeneko ebidentzia lortzeko IAGETEen urteko kontuetan aditzera ematen diren zenbatekoen eta informazioaren gainean. Zer prozedura hautatu kontu-ikuskariaren esku dago, IAGETEen urteko kontuetan akats materialak –iruzurrez edo hutsegitez– egoteko arriskuei buruzko balorazioa barne. Arrisku-balorazio horiek egitean, kontu-ikuskariak kontuan hartzen du erakundeak IAGETEen urteko kontuak formulatzerakoan garrantzia duen barne-kontrola, kontu-ikuskaritzako prozedura egokiak diseinatzeko helburuz, zirkunstantzien arabera, eta ez erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunaz iritzia adierazteko helburuz. Kontu-ikuskapen batean, halaber, aplikaturiko kontabilitate-politiken egokitasunari buruzko zein zuzendaritzak eginiko kontabilitatezko zenbatespenei buruzko ebaluazioa egin behar da, bai eta, oro har kontuan hartuta, IAGETEen urteko kontuen aurkezpenari buruzko ebaluazioa ere.

Gure ustez, lortu dugun ikuskapeneko ebidentzia oinarri nahikoa eta egokia ematen du gure kontu-ikuskapeneko iritzia emateko.

Iritzia

Gure iritziak, erantsitako IAGETEen urteko kontuek, garrantzizko alderdi guztietan, Mugarik gabe elkartearen 2014ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren irudi zehatza ematen du, bai eta egun horretan bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzen ere, aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko arau-esparruarekin bat etorrita, bereziki, esparru horretan jasotako kontabilitatezko printzipio eta irizpideekin.

MAZARREDO AUDITORES, S.L.

**Izpta.: Ignacio Cabia Agustín
2015eko ekainaren 22a
Mazarredo zumarkalea, 7 - Ezk.ko at.
48001 Bilbo
Kontu-ikuskarien Erregistro Ofizialeko S-1.643 zk.ko kidea**

2015EAN ONARTUTAKO PROIEKTUAK

2015	Emakunde	Euskal Herria	Zenbat balio du emakumeen biziak?	7.439,99
2015	GFA - Gipuzkoako Foru Aldundia	Euskal Herria	Merkataritza askeko eta inbertsioko tratatuen aurreko erresistentzia-estrategiak eta alternatibak Latinoamerikatik Europara.	79.185,30
2015	GFA - Gipuzkoako Foru Aldundia	Kolonbia	Hezkuntza Sistema Propioa (HSP) sendotzea Caucako lurralde indigenetan, jatorrizko hizkuntzetako prestakuntzan eta kulturarteko zuzenbide propioan aurrera eginez.	146.574,04
2015	BFA - Bizkaiko Foru Aldundia	Euskal Herria	Defendatzaileak: gure eskubideengatik borrokan.	44.998,61
2015	BFA - Bizkaiko Foru Aldundia	Nikaragua	Larreynagako eta Télecako antolakunde komunitarioak beren udalerrietako tokiko garapenean parte hartuz eta eragina izanez, generoaren eta belaunaldien ikuspegitik.	119.999,57
2015	Bilboko Udala	Bolivia	EMAKUME INDIGENEN PRESTAKUNTZA HOBETZEA GENERO-IKUSPEGIAREKIN	97.992,65
2015	Donostiako Udala	Euskal Herria	ROLAK UKATU, HARREMANAK ERALDATU Berdintasun faltsua alde batera utzi eta feminismotik eraikitzeke gazteekin prozesua.	19.742,32
2015	Donostiako Udala	Kolonbia	Emakumeak beren eskubideak defendatzen eta bakerako ekarpenak egiten. Kolonbia.	49.561,30
2015	Donostiako Udala	Euskal Herria	Saretuz Sarea: # ElkarlanKulturak: Kulturaren kontsumo kontziente eta arduratsua, Kontsumo Kontziente Arduratsu eta Eraldatzaileko bidea.	8.100,00
2015	Basauriko udala	Euskal Herria	Defendatzaileak: gure eskubideengatik borrokan.	14.999,78
2015	Errenteriako Udala	Nikaragua	Larreynaga udalerrian emakume-antolakunde sendotze politiko-ideologikoa eta artikulazioa, beren eskubideak defenda ditzaten.	6.260,79
2015	AFA - Arabako Foru Aldundia	Euskal Herria	Desen-rolatu zaitez. 2015eko edizioa.	10.343,30
2015	AFA - Arabako Foru Aldundia	Guatemala	"Emakume maiak ahalduntzea prestakuntza politikoaren bidez, herrien eta ingurumen eskubideak eskatzeko".	41.800,00
2015	EJ - Eusko Jaurlaritza	El Salvador	Salvadortar emakumeak subjektu politikoak, antolatuak, artikulatuak, beren eskubideen defentsan jardunez.	742.512,97
2015	EJ - Eusko Jaurlaritza	Kuba	Songo-La Maya: Erreferentziako eredu nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpenerantz eraldatzeko. III. fasea.	284.756,45
2015	EJ - Eusko Jaurlaritza	Euskal Herria	Bizitza jasangarriak izateko Eskubidearen Auzitegi Sinbolikoa.	229.656,86
2015	EJ - Eusko Jaurlaritza	Euskal Herria	Feminizidiodia, fenomeno global bat.	182.758,80
2015	Bizkaiko abokatuen elkargoa	Guatemala	Guatemalan giza eskubideak defendatzeko komunitateen auzi estrategikoetarako laguntza.	6.000,00
2015				2.092.682,73 €

EN LA LUCHA SOMOS MUCHAS
sumando fuerzas contra las Violencias machistas
indarrak batuz indarkeria matxisten kontra
EMAKUME UGARI BORTOKALARI



EN LA LUCHA SOMOS MUCHAS

Septiembre de 2015

Nosotras, mujeres y colectivos diversos, del ámbito jurídico, educativo, sanitario, internacionalista, legislativo, de la atención directa; grupos feministas y de mujeres y grupos mixtos que trabajamos día a día de maneras diversas por la erradicación de las violencias machistas; desde nuestras experiencias vividas como profesionales y activistas, **DECLARAMOS** que

ANTE

La **invisibilización de las violencias machistas** como un problema político y social de primer orden,

La ausencia del señalamiento del **sistema patriarcal y la cultura machista**, como causas estructurales de la violencia y la desigualdad generalizada,

La **reproducción continua e impune** de prejuicios y estereotipos (denuncias falsas, Síndrome de Alienación Parental, custodia compartida no consensuada...) en espacios políticos, sociales y culturales y medios de comunicación,

La **estigmatización de las mujeres** que enfrentan las violencias (culpabilización, estereotipos...),

La **falta de análisis global de la violencia**, limitándose a la violencia de pareja y expareja, dejando de lado otras violencias (sexual, laboral, institucional, trata, mutilación genital femenina...), sin considerar las realidades específicas y la discriminación interseccional (por diversidad funcional, origen, clase, orientación sexual, edad...),

La **impunidad**, la inexistencia de leyes adecuadas, ni la aplicación real de las actuales, por la falta de implicación y respuesta adecuada de los poderes públicos. Así como el insuficiente desarrollo normativo y presupuestario, evaluación y seguimiento de las leyes,

Los **recursos de atención y jurídicos**, descoordinados, sin personal especializado ni formación continuada. Y los recursos burocratizados, cuyo foco no son las mujeres sujetas de derecho sino los protocolos, en marcos de intervención sin enfoque feminista, que revictimizan a las mujeres, generando incluso violencia institucional,

Un **sistema de justicia** que reproduce los prejuicios sobre las mujeres y revictimiza en vez de garantizar sus derechos de manera contundente,

Los **servicios de atención** feminizados, con una situación precaria, masificados y cada vez más externalizados,

La falta de **prevención** de las violencias vinculada al gran déficit de igualdad existente en la educación a todos los niveles y en los medios de comunicación. Y ante la actuación mediante estrategias a corto plazo y poco integrales, sin metodologías adaptadas a la diversidad de los grupos, que no visibilizan la complejidad del ciclo de las violencias

EXIGIMOS:

Compromiso político de las instituciones públicas y de todos los agentes sociales para responder a las violencias machistas como un problema político y social de primer orden,

Revisar la **definición** de la violencia desde un enfoque feminista y de derechos humanos, incluyendo todos los tipos y formas de violencia, así como la diversidad de colectivos que la enfrentan,

El fin de la **impunidad** poniendo el foco en los agresores que vulneran los derechos de las mujeres y ejercen violencia y no sólo en las mujeres,

La **revisión, aplicación y desarrollo normativo** de la Ley Orgánica de Medidas de Protección integral contra la violencia de género, así como aquellas territoriales e internacionales (como la CEDAW y el Convenio de Estambul), en todos sus ámbitos (no sólo jurídico y de atención), junto con la dotación de los necesarios organismos de igualdad, recursos específicos y presupuestos adecuados,

La **aplicación de leyes educativas** que tengan como base imprescindible la igualdad, principio básico de prevención, con la dotación presupuestaria suficiente para desarrollarlas,

Garantizar el **derecho a la reparación** en sus cuatro elementos: la indemnización, las garantías de no repetición, la completa recuperación, la satisfacción y difusión de la verdad,

Especialización y formación con enfoque feminista de todas las y los profesionales implicados. Así como el acompañamiento y exigencia de cumplimiento de sus responsabilidades, el **reconocimiento** de su labor y la importancia de su cuidado,

Recursos y servicios públicos y de calidad que ofrezcan una atención integral y empoderadora a todas las mujeres, reconociéndolas como sujetas de derechos, protagonistas del cambio frente al rol de usuaria de servicios,

Rendición de cuentas y transparencia sobre la aplicación de las políticas y leyes, el desarrollo y uso de todos los servicios implicados, a través de evaluaciones de impacto, con enfoque feminista y participativas en las que se implique, al menos, a las organizaciones feministas y a las afectadas,

Que los **medios de comunicación** dejen de ser transmisores de estereotipos machistas mostrando toda la problemática de la violencia y sus causas, y que asuman la oportunidad de convertirse en generadores de modelos igualitarios y contra las violencias,

Que la **prevención** sea una prioridad política, que dé respuesta a la complejidad de las violencias machistas, abordando todas sus formas y las causas que la provocan, a fin de cambiar urgentemente la realidad actual en todos sus ámbitos y exigiendo a los poderes públicos la erradicación de todas las formas de violencia.

EMAKUME UGARI BORROKOLARI 2015eko iraila

Guk, emakume eta kolektibo ezberdinak, eremu juridikokoak, hezkuntzakoak, osasungintzakoak, internazionalismokoak, legegileak, zuzeneko arretakoak; emakumeen taldeak eta talde feministak zein mistoak, egunez egun modu ezberdinetan indarkeria matxista erotik kentzeko lan egiten dugunak, profesionalki eta aktibista gisa bizitako esperientzietatik honakoa **ADIERAZTEN DUGU**

EGOERA HAUEN AURREAN

Indarkeria matxisten ikusgarritasun eza lehen mailako arazo politiko eta sozial gisa,

Sistema patriarkatua eta kultura matxista seinalatzearen ausentzia, indarkeria estrukturala eta desberdintasun orokorraren kausa gisa,

Aurreiritzi eta estereotipoen **erreproduktzio jarrai eta zigorgabea** (salaketa faltsuak, Senideekiko Alienazio Sindromea, adostu gabeko zaintza partekatua...) espazio politikoetan, sozialetan eta kulturaletan, eta komunikabideetan,

Indarkeriari aurre egiten dioten **emakumeen estigmatizazioa** (erruduntasuna, estereotipoak...),

Indarkeriaren analisi globalaren falta, bikote eta bikotekide ohien arteko indarkeriara mugatuz, beste indarkeria batzuk alboratuz (sexuala, laborala, instituzionala, salerosketena, emakumeen genitalen mozketa...), errealitate zehatzak eta diskriminazio intersektzionala aintzat hartu gabe (aniztasun funtzionala, jatorria, klasea, orientazio sexuala, adina...),

Inpunitatea, lege egokien existentzia eza, baita egungo legeen aplikazio erreal eza ere, botere publikoen inplikazio eta erantzun egoki faltagatik. Baita araudi eta aurrekontuen garapen, ebaluazio eta legeen jarraipen eskasa ere,

Arreta eta baliabide juridikoak, deskoordinazioa, langileen espezializazio eta formakuntza jarraitirik gabe. Eta burokratizatutako baliabideak, haien fokua ez baita eskubideen jabe den emakumea, protokoloak baizik, interbentzio markoetan ez dute ikuspegi feministarik, emakumeak berbiktimizatzen dituzte, indarkeria instituzionala sortuz,

Emakumeekiko aurreiritziak erreproduzitzen dituen **justizia sistema**, haien eskubideen bermea sendotu beharrean berbiktimizatzen dituelarik,

Feminizatutako **arreta zerbitzuak**, egoera prekario batean, masifikatuta egonik geroz eta gehiago kanpotik bideratzen direlarik,

Hezkuntzako maila guztietako berdintasun defizit handiari eta komunikabideei lotuta dagoen eta existitzen den **indarkerien prebentzio falta**. Eta integraletik gutxi duten epe motzeko estrategien eta ekintzen aurrean, taldeen aniztasunari egokitutako metodologiarik eza, ez baitute indarkerien zikloen konplexutasuna ikusgarritzen.

EXIJITZEN DUGU

Instituzio publikoen eta agente sozial guztien **konpromiso politikoa** indarkeria matxistei lehen mailako arazo politiko eta sozial gisa erantzuteko,

Indarkeriaren **definizioa** ikuspuntu feminista eta giza eskubideen ikuspegitik berrikustea, indarkeria modu eta forma guztiak txertatuz, pairatzen duten kolektiboen aniztasuna barne,

Inpunitatearen amaiera, fokua indarkeriaren bidez emakumeen eskubideak urratzen dituzten erasotzaileengan jarriz, eta ez emakumeengan bakarrik,

Genero indarkeriaren aurkako Babes integraleko Neurrien Lege Organikoaren **berrikuspena, aplikazioa eta araudiaren garapena**, baita lurralde edo nazioarte mailakoena ere (Estambuleko akordioa eta Emakumeen Institutu Nazionalarena kasu), eremu guztietan (ez soilik juridikoan eta arretan), berdintasuneko beharrezko erakundeen egokitzapena, aurrekontu eta baliabide espezi-fikoekin hornituz,

Berdintasuna ezinbesteko oinarritzat duten **hezkuntza legeen aplikazioa**, prebentziorako oinarri basikoa, garatzeko beharrezko aurrekontua eskainiz,

Konponketa eskubidearen lau elementuak bermatzea: indemnitazioa, ez erreperikatzeko bermea, erreperazio totala, asebetetzea eta egjaren zabalpena,

Ikuspegi feministadun **espezializazio eta formakuntza** inplikaturako langile guztiengan. Baita haien ardurak betetzeko exijentzia eta laguntza ere, haien lanaren **aitortza** eta haien zainketa garrantzia barne,

Arreta integrala eskaini eta emakume guztiak ahaldunduko dituen **baliabide eta zerbitzu publiko eta kalitatezkoa**, eskubideen subjektutzat aitortuz, zerbitzuen erabiltzaileen rola aurrean aldatetaren protagonista izateko,

Kontuen errendizio eta gardentasuna politikak eta legeak aplikatzerako orduan, inplikaturako zerbitzu guztien erabilera eta garapena, eraginaren ebaluazioaren bidez, ikuspegi feminista eta parte-hartzailean erakunde feministak eta kalteturako pertsonak inplikaturako dituenak, gutxienez,

Komunikabideak estereotipo matxisten transmisore izateari uztea indarkeriaren problematika eta kausa guztiak azalduz, eta indarkerien kontrako eredu parekideen sortzaileak bihurtzeko aukera edo ardura haien gain hartzea,

Prebentzioa lehentasun politikoa izatea, indarkeria matxisten konplexutasunari erantzutea, modu eta berau probokatzen duten kausa guztiak landuz, egungo egoera alor guztietan urgenteki aldatzeko helburuarekin eta botere publikoei indarkeriaren forma guztiak errotik desagertaraztea exijituz.

indarrak batuz indarkeria matxisten kontra
EMAKUME UGARI BORTOKALARI

